


3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Atal honetan, negozio-ereduak funtzionatzea ahalbidetzen duten hornitzaile eta bazkide-sareak osatzen dituzte. Gure kasuan, bazkidea energia enpresa bat izan behar da, adibidez, Iberdrola. Gure hornitzaileak, elektrikariak izan behar dira etxearen argi korrontean sentsoreak jartzeko eta informatikoak izan behar dira sistema eta aplikazioa konfiguratzeko. Horretarako, gure bazkideak aukeratzeko edo hautatzeko, beraien informazioa jakin beharko genuke, horretarako beraiekin elkarrizketa bat egingo genuke ikusteko, beraien enpresako eta gure enpresako baldintzak ea betetzen diren. Gure kasuan, eragileak eta bazkideak, informatikan, elektrizitatean eta internetarekin trebeak diren pertsonak edo enpresekin lan egin behar dugu. Esan bezala, gure proiektua aplikazio bat sortzea da, honek etxeetako edozein makina edo elektrizitatezko gailuak kontrolatuko ditu.



Hortaz gain, gure enpresak ere itunak sinatuko ditu, itun hauek askotariko arrazoiengatik ezar daitezke. Lehenik eta behin, gure negozio-eredua optimizatzeko itunak sinatuko ditugu. Beste arrazoi bat, arriskuak murrizteko itunak ere sinatuko ditugu. Honekin argi utzi nahi ditugu gure aplikazioak izan ditzakeen arriskuak. Gure kasuan, aplikazioak izan dezaken akats bat izan daiteke aplikazioaren eta etxe gailuen konexioa galtzea, horrek aplikazioaren erabilgarritasuna okertuko zuen. Bestalde arriskua izan daiteke aplikazioa erortzea eta etxe gailuak izorratzea, baina argi utzi nahi dugu gure aplikazioak ez duela horrelako arriskurik sortuko, azkenean guk erabiltzen dugun teknologia oborenatarikoa.

Azkenik, bazkideak eta hornitzaileak guretzako oso garrantzitsuak dira sistema eta aplikazioa martxan jartzeko orduan. Azken batean, beraiek sistema eta aplikazioa jarri behar dutenak, guk jendeari zerbitzu bat ematen diogu eta bazkide eta hornitzaileek praktikan jartzen dute etxebizitzetan. Hortaz gure enpresako bazkide eta hornitzaileak honako hauek dira: Olaiak, webgunearen sorrera egin du; Isabelak, aplikazioaren diseinua egin du; Natalek, aplikazioaren jarduerak sortu ditu; Adela, enpresaren funtzionamendua eramaten du eta Ekhi, enpresaren gida eramaten du.